# ERABAKITZEKO... HELDUAK

# PERSONAS LISTAS... PARA DECIDIR



PORTUGALETE

DROGA-MENDEKOTASUNEI BURUZKO PORTUGALETEKO UDALAREN IV. PLANA

IV PLAN MUNICIPAL DE DROGODEPENDENCIAS DE PORTUGALETE

Ayuntamiento de
**Portugalete**ko Udala

*Drogak gaur egun ez omen dira jendearen kezkabide, aurreko garai batzuetan izan ziren bezala. Horrek, hala ere, ez du esan nahi gure ingurunean drogarik ez dagoenik.*

*Prebentzio-lanetan eraginkorrak izango bagara, pertsonen garapenean azpimarra egin behar dugu.*

*Baldin eta gure seme-alabek aldian-aldian informazio objektibo nahikorik badute eta sozialki iaioagoak izateko trebetasunak eskuratzen badituzte, biztanle prestuak eta helduak izango ditugu erantzukizun handiz erabakiak hartu ahal izateko. Helburu hori dute, hain zuzen, liburuxkan jasotako jarduketek.*

*Que hoy las drogas preocupen menos que en otros tiempos, no significa que no se consuman o no estén presentes en nuestro entorno.*

*Para ser eficaces en la prevención de adicciones, debemos poner el acento en el desarrollo de las personas.*

*Si nuestros hijos e hijas disponen periódicamente de información objetiva y de herramientas que les hagan socialmente más competentes, serán personas mejor preparadas y más maduras para tomar decisiones con mayor responsabilidad. Esto pretenden las acciones recogidas a continuación.*



**Mikel Torres**

*Portugaleteko alkatea*
*Alcalde de Portugalete*



# LAGUNEKIN BARATZEAN

# EN LA HUERTA CON MIS AMIG@S



**Haur eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak**
**Infantil, 1º y 2º de Primaria**

Haurren emozioak eta sentimenduak lantzen ditugu ipuin eta txotxongiloen bitartez.

Trabajamos las emociones y los sentimientos de los niños/as con la ayuda de cuentos y títeres.



# Osasunkume

Bizitzaren abentura



**Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailak**
**3º, 4º, 5º, y 6º de Primaria**

Kromo-bildumak baliatuta, trebetasun sozialak eta gaitasunak lantzen ditugu, hala nola autoerrespetua, erronkei aurre egitea, tentsioa kontrolatzea, haurren arteko harremanak, erabakiak hartzea eta ohitura osasungarriak sustatzea.

Contribuimos al desarrollo de competencias y habilidades sociales como el autorrespeto, afrontar los desafíos, manejar la tensión, relacionarse y tomar decisiones y promovemos hábitos saludables, con la ayuda de álbumes de cromos.

# zineskola

**Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Lanbide-Heziketa eta familiak**
**Primaria, Secundaria, Bachilleratos, Formación Profesional y familias**

Hezkuntza-fase desberdinetan hamaika film proiektatzen dira. Hori horrela, unitate didaktiko bat baliatuta, zine-aretoko filmaren gaia ikasgelara daramagu debatea sortzeko asmoz.

A partir del visionado de once películas en las diferentes etapas educativas, llevamos de la sala de cine al aula el debate sobre la temática de cada película con la ayuda de una unidad didáctica.





# DATSEG IKT

## INTERNET ETA BIDEO-JOKOEN NEURRIKO ERABILERA

**Lehen Hezkuntzako 5. maila**
**5º Primaria**

Tailer hauetan teknologiarekiko menpekotasunak lantzen ditugu eta, halaber, teknologiak daukan eragina, batetik, gure jokaera-emozioetan eta bestetik, gure nortasuna, interesak eta beharrak eraikitzeko moduan ere bai.

Talleres para abordar la “adicción” y la influencia de la tecnología en nuestro comportamiento, en nuestras emociones y en nuestra forma de construir nuestra identidad, intereses y necesidades.

# LURR IKARA

**Lehen Hezkuntzako 6. maila**
**6º Primaria**

Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera igarotzeak ikasleei dakarzkien aldaketei aurre egiteko tailerrak. Autoezagutza, emozio eta sentimenduen gobernatzea, haurren arteko harremanak eta enpatia lantzen dira.

Talleres para trabajar el autoconocimiento, el manejo de emociones y sentimientos, las relaciones interpersonales y la empatía, en el paso de Primaria a Secundaria y los cambios que supone para el alumnado.



## 2. Ikastetxeetakoak ez diren profesionalekin antolatzen ditu ikasgelako jarduerak
## 2. Realiza actividades en el aula con profesionales que no pertenecen al centro escolar



# PRIMERAS TOMAS
UKIAK

{ DBHko 1. maila
1º de la ESO }

Gizarte-trebetasunak ikasteko tailerrak: erabakiak hartzeko gaitasuna, taldeko presioa, komunikazio asertiboa, pentsamendu kritikoa eta gatazkak konpontzea, hezkuntza-etapa eta ikastegi berri batera iritsita.

Talleres de aprendizaje de habilidades sociales: toma de decisiones, presión grupal, comunicación asertiva, pensamiento crítico y resolución de conflictos al llegar a un nuevo centro y a una nueva etapa educativa.

# ASTELEHENEAN GAIXO
# SÍNDROME DEL LUNES



**DBHko 2. maila**
**2º de la ESO**

Asteburuko bizipenei buruz gogoeta egiteko tailerrak dira. Drogak (kanabis eta alkohola), sexualitatea, itxaropenak eta damuak mintzagai dira.

Talleres para reflexionar sobre sus vivencias de fin de semana. Hablamos de drogas (cannabis y alcohol), sexualidad, expectativas y remordimientos.

# YERBA

**DBHko 3. maila**
**3º de la ESO**



Porroak (kanabisa) kontsumitzearen kalte eta arriskuei buruz gogoeta egiteko tailerrak dira. Halaber, kanabisa gazteen eguneroko bizitzan nola sartzen den aztertuko dute.

Talleres para provocar reflexión y pensamiento sobre los daños y riesgos derivados del consumo de "porros" (cannabis) y la introducción en su vida diaria.



# NIREA ONDO DA?
# ¿ES NORMAL LO MÍO?

**DBHko 3. maila**
**3º ESO**

Sexualitateari buruzko tailer laburrak, sei ordukoak.

Talleres breves de sexualidad en 6 horas por aula.




# OH! 180º

**(Alkohola eta adingabeak**
**Alcohol y menores)**

**DBHko 3. maila**
**3º ESO**

Irudietan ardaztutako tailerrak dira, helburu dutelarik gazteek euren buruari galderak egitea, ideiak ordenatzea eta alkohola kontsumitzearen ondoriozko jarrerak, emozioak eta jokaera arriskutsuak identifikatzea.

Talleres apoyados en imágenes para que se hagan preguntas, ordenen ideas e identifiquen actitudes, emociones y conductas de riesgo derivadas del consumo de alcohol.

# MARITXU

**(Kanabis eta adingabeak) (Cannabis y menores)**

**DBHko 4. maila**
**4º de la ESO**

Irudietan ardaztutako tailerrak dira, ikuspegi kritikoz iritziak eta esperientziak emateko, ideiak ordenatzeko eta kanabisa (porroak) kontsumitzearen ondoriozko jarrerak, emozioak eta jokaera arriskutsuak identifikatzea.

Taller apoyado en imágenes que someten a juicio crítico sus opiniones y experiencias, ordenan ideas e identifican emociones y conductas de riesgo en relación con el consumo de derivados del cannabis ("porros")






Welcome to
TIJUANA

**DBH, Batxilergoa eta Lanbide-Heziketa**
**ESO, Bachillerato y Formación Profesional**

Institutuetan zigortuta dagoen eta aldi baterako bota duten edo bota ahal duten ikasleari ibilbidea egiteko eta laguntza emateko programa, hezkuntza-atazak egin ditzan.

Programa de itinerarios y acompañamiento para realizar tareas educativas con el alumnado sancionado y expulsado temporalmente de los institutos o que se prevea que puede ser expulsado.

*• Lantegi-emaileak profesional gazteak dira, haien adina ezinbestekotzat jotzen baitugu ikasleei hobeto iristeko xedez.*

** Todos estos talleres son realizados por profesionales jóvenes. La edad nos parece un factor fundamental para llegar mejor al alumnado.*

# zineskola

## FAMILIAK - FAMILIAS

Film ziklo baten proiekzioa oinarri hartuta, debatea eta gogoeta bultzatzen dira. Ikasleek aurretik ikusita dute filma irakasleekin batera.

Debate y reflexión a partir del visionado de un ciclo de películas de cine que previamente ha visto el alumnado con su profesorado.



# GURASOEN ESKOLA

# ESCUELA DE PADRES Y MADRES

Ikastegiek aukeratzen dituzten gaiei buruzko formazio aldizkakoa eta sekuentziaduna, hartzaileak gurasoak direlarik.

Formación periódica y secuenciada para madres y padres sobre temas que elige cada centro.








# AULA MAGNA

Gurasoei zuzenduriko unean uneko formazioa, ikastegietako arlo horretako behar berariazkoa, ikastegien eskaria beti ere kontuan hartuta.

Formación puntual en forma de charla o taller a madres y padres, en función de las necesidades formativas detectadas por cada centro escolar y a demanda de este.

# COMPÁS de espera-itxarobide

Drogak kontsumi ditzaketen edo jokaera arriskutsuak dituzten adingabeen gurasoei laguntza emateko programa; harrera egiteko eta aholkularitza ematekoa ere bai.

Programa de acogida, información y asesoramiento a padres y madres de menores adolescentes que puedan consumir drogas o presenten conductas de riesgo.

Eskola-esparrutik kanpo Udalak hauxe eskaintzen du: / Fuera del ámbito escolar ofrece lo siguiente:

# GAZTEAK ETA LONJAK. KOMUNEKO TOKIAK

# JÓVENES Y LONJAS. LUGARES COMUNES

Gazteek beren aisialdirako erabiltzen dituzten lokalez (lonjak) ari gara. Hezkuntza mailako esku-hartze bat da, bitartekaritzakoa, xede duelarik arriskuak prebenitzea baita alde inplikatuen bizikidetza hobetzea ere.

Tratamos el fenómeno del uso de locales (lonjas) por jóvenes en sus momentos de ocio. Se trata de una intervención educativa y de mediación para prevenir riesgos y mejorar la convivencia entre las partes implicadas.




# DISKREZIORIK GABEKO GAZTEAK

# JÓVENES INDISCRETOS/AS

Drogak bide publikoan kontsumitzeagatik legeak dakarren isun ekonomikoaren ordezko tailerra.

Taller alternativo a la sanción económica por consumo de drogas en la vía pública en aplicación de la normativa correspondiente.



**Eskola-esparrutik kanpo Udalak hauxe eskaintzen du: / Fuera del ámbito escolar ofrece lo siguiente:**

## KOLOKON.com PORTUGALETE



Webgune honen eta bere sare sozialen bidez, drogak, sexualitatea eta jokaera arriskutsuak ulertzeko eta informatzeko ulerkera berri bat da. Informazioa eta lineako kontsultak.

Una forma diferente de entender e informar sobre las drogas, la sexualidad y otros comportamientos de riesgo a través de esta web y sus redes sociales. Información y consultas on line.




- Jaietan prebentzio-, sentsibilizazio- eta esku hartzerako kanpainak.
- Campañas de prevención, sensibilización e intervenciones en fiestas.

---

- Mendekotasunen gaineko ikastaroak, jardunaldiak, erakusketak, azterlanak, gogoeta egiteko foroak, analisiak eta ezaguerak nahiz esperientziak elkarri trukatzeko analisiak.
- Cursos, jornadas, exposiciones, estudios, foros de reflexión, análisis e intercambios de conocimientos y experiencias sobre el fenómeno de las adicciones.

---

- **Droga-mendekotasun Sailaren Informazio Bulegoa.** Droga-mendekotasunaren gaineko norbanako informazioa, orientazioa eta aholkularitza.
  Aurretiko hitzordua hartzeko, **944729216** telefonoa edo **prevencion@portugalete.org** helbide elektronikoa dituzu.
- **Oficina de Información de Drogodependencias.** Información, orientación y asesoramiento individualizado en materia de drogodependencias.
  Cita previa en **944729216** o en **prevencion@portugalete.org**.

**Eskerrak eman nahi dizkiegu irakasle gogotsuei, GKEei, profesionalei eta herritarrei ere bai egunean-egunean gurekin ari baitira mendekotasunak prebenitzeko langintzan**

*Gracias al profesorado entusiasta, a las ONG, a profesionales y a la ciudadanía que día a día colaboran haciendo posible nuestra labor de prevención de las adicciones*

Ayuntamiento de
Portugaleteko Udala

# Droga-mendekotasunei buruzko Portugaleteko Udalaren IV. Plana

**Pertsonak, drogak eta gehiegizko erabilera bultza dezaketen jokabideak**
**Tokiko estrategiarako kartografia irekia (2017-2026)**

*IV Plan Municipal de Drogodependencias de Portugalete*
*Personas, drogas y conductas con potencial de abuso*
*Cartografía abierta para una estrategia local (2017-2026)*

94 472 92 16 prevencion@portugalete.org

**Laguntzailea /** *Colabora*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO